


Txotxin:



txori txiki

eta

emankorra

Heldu da bai aurten ere udaberria, eta Laurarentzako lehenengoa izan bada ere, bada ere familian makinatxo bat zuhaitz loratzen ikusi duenik. Dominga Narbaizaz ari gara, nor den Dominga Narbaiza? Izenez gutxi askok ezagutzen badu ere, TXOTXIN gaitzizena aipatuz gero, edonork daki zein familiatakoa den.

Nagusienek, ondoen Maria, Antonia... ezagutuko dituzte; gazteagoek Txanga, Itziar, Ramon, Miren Agus, Lourdes...; eta neska mutikoen osteria Zigor, Iker, Eskarne, Aitor, Haritz, Maria, Amaia...; ba Dominga, lehenengoen ama, bigarrenengoen amama, hirugarrenengoen birramama eta Lauraren herenamona da. Bost belaunaldi elkartu dira beraz.

Drogetenitturri Dominga eta Antonia-ekin aritu da berriketan. Domingak 92 urte ditu, baina gazteagoa de askok hartuko lituzke honen osasuna, eta batez ere bere buru argia, ez bait da-

go ezer ahaztekotan.

Ezer baino lehen Txotxin gaitzizena nondik datorren jakin nahi izan dogu, eta Antoniak: «Ez dakigu, ta ibili gara horren zerian, ibili gara ta idearik bez. Ta gainera gure Mariak esanda Ondarrutik hona, teatroren bat etorri ei zan, ikus-tera joan eta hara nun eta bata besteari TXOTXIN esaten ei zotzan. Mariak orduan 'Ene! hori zer ote don?'. Ta jakinguran joan ta preguntau zotzen. Ezabez, esateko modu bat besterik ez zala». Domingak berak ere ez daki.

Eibartarra dugu Dominga. Lehenago «etorri bai, erromerixara be bai Ermura etorri», baina 20 urterekin Elias Ormaetxea ermutarrarekin ezkondu arte ez zela Ermukoa izan dio.

Ez ei zeukan ez, orduko Ermuak oraingoaren itxurarik: erdikokalea, laupabost baserri eta hiru edo lau besterik ez ei zegoen.

Ezkonberritan Ureta baserrian bizi izan ziren senar-emazteak, han Maria jaio zan; gero Eitzagara jetsi eta bertan Dionisio; Handik Prabalekura etorri eta Antonia, azkenik Patakoian Timo jaio zelarik. 4 semealaba, etxe banatan jaiotakoak.



Belaunaldi guztietakoek euskaraz dakiten galdetu diogunean, «ein be bai, euskaldunak gara gu, gitxi edo asko, euskaraz, ein eitxen dogu erderara, baina gitxi. Jakin bai, dan danok dakigu euskeraz».



«Belaunaldi guztietakoek euskaraz dakiten galdetu diegunean, 'Ein be bai, euskaldunak gara gu, gitxi edo asko, euskaraz, ein eitxen dogu erderara, baina gitxi'».

«Domingak, lehengo bizimodua oraingoa baino honia zela pentsatzen duen arren, Antoniak, bera orain hobeto bizi dela dio».

Gaur egun daraman bizimoduaz ere itaundu diogu. «Jan da egon, ibiltzeko be biharra ein behar da ta». Telebistari begira ematen ditu orduarik gehienak, berau baju-bajuan entzutea guztatzen zaiolarik. Batzuentzat harrigarria gerta daitekeen arren Domingak aukera ezberdinen artean «deportia nahien» ei du. «Futbola gehien, kargajasotzia gitxien, haizkoria bez, baina danak gustau egiten jataz, deportiak danak. Gauzia ipintzia alperrik don, lehenendotik hasi eta azkenera ikusten ez ba don, eta ez 'tik' eta 'tak' txismiorrekin, kaka zaharra don hori».

Domingak, lehengo bizimodua oraingoa baino hobea zela pentsatzen duen arren, Antoniak, bera orain hobeto bizi dela dio.

Dominga Narbaiza Iriondo Maria Dionisio Antonia Timo Enrike Jose Luis M^a Angeles Miren Agus Lourdes Josu Galder Zigor Eskarne Haritz Amaia Juan Inazio Jabier Elias Jose Antonio Felix Itziar Ramon Susana Beatriz Maria Aitor Jon Asier Oskar Iker Antton Laura

Herenamonarendako gaur egun «gulia dago, inbidixia, andrazkoak gizonezkoak baino txarrago prakekin, gizonezkoak belarritakoekin. Mundua itxura bat da, diruak munduan gerria emoten dau».

Berriketan geundela giputzei buruz zerbait aipatu orduko holaxe erantzun zigun: «giputzei bakian laga, danian dabiz aurrenengo eta. Bizkaixan dirua egongo da baina besterik ez dakik dauan». Alabiak osteria «hoixe daukau gitxitxo ba».

Orain argazkilariaren zai gelditu da, argazkian irteteko pintatu eta trabilla bat ipini baharko diogula esan digu.

